

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Donostiako Zinemaldian aurkezpena egin eta gero, zine aretoetara iritsi da ikusmin handia piztu duen euskal ekoizpena

2015eko urriaren 16a, 456 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

AMAMA, ASTEBURU HONETAN BASTERON

Ehunka lagunek Pausoka elkartearekin bat egin zuten

Pausoka egunak Gipuzkoa osoko biztanleak erakarri zituen Urnietara.

Igande iluntzean Pausoka elkar-teko gurasoak pozarren zeuden, ehunka eta ehunka pertsona hurbildu baitziren Egape ikastolako jolastoki estalian antolatuta zuten jaialdira. Pozarren eta eskertuta, halaxe hitz egin zuen **Maria Lesakak** jaialdiaren azken ekitaldian. Egape ikastolaren kanpoaldean, puxikak aire-ra bota aurretik, gurasoen ize-nean esker ona adierazi zuen Markel Carmonaren amak.

Egape ikastolako jolastokia



Porrotx pailazoa eta Ane Pirataren sailoaren amaiera ekitaldia, Egape ikastolan.

jendez lepo bete zen, eta Porrotx eta Ane Pirataren eman-kizuna amaitu arte ia ia denak

hantxe geratu ziren. Emozio handiko eguna izan zen, irekiera ekitaldia San Juan plazan

Pozarren eta eskertuta, halaxe agertu ziren Pausoka elkar-teko gurasoak

egin zutenetik hasita. Bertan "Pausoka" kantua jarri zuten megafonian eta Markel haurra hainbat begirale eta lagunekin batera dantzan aritzeko altxa zen. Egunak eman zituen irudi seinalatuen artean, huraxe izan zen lehenetakoa.

Gaua zen puxikak airera bota zituztenean. Zerurako bidea hartu zuten, herritarren txalo eta oihera artean. Egun gogoangarria izan zen Pausoka elkar-tea osatzen dutenentzat.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Bilera irekiak

Andoainen eta Urnietan herritarrek deitu dituzte bilera ezberdinetara. Andoingo Udalak ostegun honetan "Parte hartze hariak lotuz" ekimenari amaiera emango dio. Urnietako Udalak **bake programa** aurkeztuko du jendaurrean, urriaren 22an.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Zazpi urteko moto gidaria



Beñat Fernandez Etxeberria andoaindarra, motoziklistimoan trebatzen ari da, Nafarroan.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

Euskara erabiltzeko tresnak

Eskualdean euskararen erabilera areagotzeko tresna eta baliabide ugari dago.

[ERREPORTAJEA, 8-9. ORRIALDEAK]

Erosketak egiteko eta Udal zerbitzuez baliatzeko txartel elektronikoa

Andoain Hiri Txartela aurkeztu berri dute Udalak eta Salkinek elkarlanean, Rural Kutxaren lankidetzarekin.

Merkataritza sustatzeko eta Udal zerbitzuez baliatzeko, txartel elektronikoa zerbitzuan jarri dute Andoainen. Hiri txartelarekin Salkineko merkatalgunetan deskontuez eta beste abantailez

gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Era berean, Hiribusa hartzeko edota liburutegian edota kiroldegian sartzeko baliagarria izango da. Rural Kutxak egitasmo honetan bere burua "bazkide teknologikotzat" definitu du. Salerosketak egiteko baliagarria izango da, eta ez da zahazki finantza erakunde hartako bezero izan behar. Udaletxean, Salkinen eta Rural Kutxan eskuragarri daude. Erronka nagusia dute: herritarrek erabiltzea.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



Rural Kutxako, udaletxeko eta Salkineko kideek aurkeztu zuten ekimen berria.

BIZIKIDETZA KULTURA BERRIA SUSTATUZ

EGUNA
urriak 15
LEKUA
LEKAIO
ORDUA
19:00

mahai-ingurua
BAKEA, BIZIKIDETZA
eta KOMUNIKABIDEAK

Gorka Landaburu
Pablo Muñoz
Martxelo Otamendi

EGUNA
urriak 22
LEKUA
LEKAIO
ORDUA
19:00

bake-pintxoak
Urnietako BIZIKIDETZA
PROGRAMA lantzeko

Herritar guztiei irekita,
Udaleko programaren berri emango da
eta edukiak zehazteko herritarren iritzia
eta ideiak jasoko dira.

Urnietako Udalak parte hartzera gonbidatzen zaitu



Irteera Denda Berrirekin

Datorren urriaren 24an Denda Berrik Burgosera irteera antolatu du. Goizeko 07:15etan abiatuko dira egoitzatik, eta hiriburua bus turistikoan ezagutzeko asmoa dute. Izen ematea zabalik dago.

BINGOA

Bestalde, bingoa urriaren 22an arratsaldeko 18:00etan hasiko dela adierazi dute.

ESKOLAK

Jarduera gehiago burutzen ari dira elkartean. Memoria lantzeko ikastaroa asteazkenetan egiten ari dira. Jostungintza tailerra, aldiz, ostiralero.

Elkartasun gaua Saroben



Paddam taldeak kontzertu solidarioa eskainiko du larunbat honetan, Saroben. Estefania S. Wulf kantaria eta Iñaki Miguel pianojolea dira taldeko partaideak eta 50-70eko hamarkadako musika lantzen dute. Kontzertua Markel Carmona haurraren erreabilitazioa ordaintzen laguntzeko antolatu da. Sarreren prezioa 5 eurokoa da. Bi saio egingo dituzte, iluntzeko 19:00etan eta 20:00etan.

Horrez gain, antolatzaileek adierazi dutenez, kontzertura joan ezin duenak, 2100 6252 14 0100111429 (La Caixa) kontu korrontean diru-ekarpena eginez Markel Carmo-nari lagun diezaiokete.

Haur ikuskizuna

“Azken Eguzkilorea” familientzako ikuskizuna eskainiko dute Saroben, urriaren 25ean. Arratsaldeko 17:30etan hasiko da ikuskizuna txotxongiloak, maskarak, antzerkia eta umorea uztartzen dituenak.

XOXOKAKO JAIK

Sega erakustaldia eta bertso saioa

Aurreko larunbatean sega apustua jokatu zuten Xoxokako belazeetan: Julen Gabirondo eta Alaitz Imaz, Suharri Irazustabarrena eta Jon Otegiren aurka. Ha-

sieratik hartu zuen aurrea mutilek osatutako bikoteak, eta abantailari eutsi zioten amaierara arte. Emozioa piztu zen azken minutuetan.



Sega desafioan eta ondorengo erakustaldian parte hartu zuten segalariak.



Julen Gabirondo eta Alaitz Imaz lanean.




Beizama, Gaztelu, Lizartza eta Beteluko segalari gaztetxoek ikusleen harridura piztu zuten, belarra mozteko orduan erakutsi zuten trebeziagatik.



Larunbat goizeko hamaiketakoan bertsoan aritu ziren Haritz Mujika eta Adur Gorostiaga bertsolariak.

Azken minutuetan Gabirondok azeleragailua zapaldu zuen bitartean, bi mutilak lanean zertxobait moteltzen ari zirela ikusi zen, eta horri esker tartea murrizten joan ziren. Emozioa piztu zen azken minutuetan; bi bikoteak berdintzera iritsi zitezkeela pentsatu zuten ikusleek, baina ez zen halakorik gertatu azkenean. Ikuskizun polita eskaini zuten, eta ikusleek ederki gozatu zuten.

Sega ikuskizunaren aurretik, hamaiketako izan zen Xoxokako eskolan. Haritz Mujika asteasuarrak eta Adur Gorostidi larraizarrak bertsoan jardun zuten, elkarrizkiaz.



Adur
Gizarte hontan dena kentzea bihurtu zaigu kultura. Baina oraindik probestu behar ardoaren abentura. Haritz, baki aspaldi hontan zein den zure kultura: gauean dena edaten dezu eta goizean berriz ura.

Haritz
Honek egia esan duenik ez dezue, ba, usteko! Gauez ederki ibiltzen gera iluntasuna tarteko. Uda ordun ondo, baina zerbeza igual askoz e hobeto. Gero taxista eskatu behar etxera ailegatzeko.

Adur
Ni ere hola ibiltzen nintzen orain jadanik ez lehen. Eta horregatik kontua ere aldatu nahi det nabarmen. Haritz parten bat ba ote dezun jakin nahi nuke nik hemen. Esan esazu Inbutei alden orain zer berri dagoen.

Haritz
Baina zurekin ari ginan da, ta orain kontuak ez nastu Honek parrandak luzea dauka gizona baitzaigu zartu. Aita nonbait egin omen da, bere kanta bere kantu. 100 txekor buru zaintzen ditu ta haur bat ezin gobernatu.

Adur
Nahiz ta saiatu behar bezela sarri ezin egin kasu. Agian bada aleginaren ta ezinaren mila zantzu. Baina hemendik adarra jotzen ederki zabilta, aizu! Haritz, zuk parra egin ezazu buelta etorriko zaizu.

Haritz
Liburuetan irakurri det, ta detale eta guzi. Haurxobat nola ekarri behar dan ta sexua dala nagusi. Lenik muxu bat gero beste bat, irrintzi eta igurtzi. Teoriatik asko dakit nik, praktikatik oso gutxi.

Adur
Sexu kontuak aipatzen hasi zera eta gure kalte. Jakin ezazu ume bat dela bizi guztirako kate. Ta zu andregai gisan zabilta jolasetik ez aparte. Eskuak geldik eduki itzazu behintzat ezkondu bitarte.

PAUSOKA EGUNAREN BIGARREN EDIZIOA URNIETAN

Pausoka elkarteak: “Eskerrik asko”

Igandeko ospakizuna jendetsua izan zen, datuei erreparatzea besterik ez dago. Elkartearen datuen arabera, herri bazkarian 900 lagun bildu ziren eta haur ikuskizunaren ia 1500 txartel saldu zituzten.

Egunean zehar Pausoka gunetik 5.500 lagun ibili zirela zenbatu dituzte. Datu horiekin Pausoka elkartekoak hunkituta eta eskertuta daude. Nola ez, pozarren daude aurreko igandeko festarekin.

Nekatuta, ospakizunaren ondorengo ajea igarotzen ari dira Pausokako kideak. **Maite-der Requejok** festaren ondorengo balorazioa egin du Aiurrirentzat: “Ez genuen espero horrelako erantzuna jendearen aldetik. Bultzada handia izan da elkartearentzat eta kostako zai-gu hainbat lagun laguntza eta inplikazioa ahaztea. Hainbeste jende hurbildu zen haur ikuskizunerako ilarak sortu zirela. Barkamena eskatu genuen unean bertan, erabat gaindituta geundelako. Datorren urterako zer hobetu behar dugun ikasi dugu”. Arazo zehatz horiek kenduta, pozarren daude Pausokan: “Hunkituta gaude, eta eskerrak ematea dagokigu. Behar adina aldiz esango dugu eskerrik asko”.



Pausoka elkarteko kideak pailazoaren ikuskizunaren azken kantuan igo ziren taula gainera.



Markel Carmona haurrak laguntzaile bikainak izan zituen goizeko ekitaldiko dantza saioan.

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
Aiurri



Albistegia webgunean:

- Argazkiak, bideoak, kronikak
- Sanmielak, Xoxokako jaiak, Pausoka eguna

www.aiurri.com webgunean
Eskualdeko nortasun hitzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

AUZOZ AUZOKO BILERAK ANDOAINEN

Zuhaitzak herritarrentzat arazo bihurtzen direnean

Andoaingo Udalak bi asteotan auzoz auzoko bilera irekiak deitu ditu, Udalak agintaldi honetarako dituen erronka nagusiak azaldu eta herritarren ekarpenak jaso asmoz. Ura azpiegiturarekiko kez-

kaz gain, bilera ezberdinetan herritar batzuk zuhaitzen tamainarekin edota zuhaitzek botatzen duten erretxinarekin kezka agertu dute. Irtenbideak eskatu dizkiote Udalari.



Karrika kaleko seigarren zenbakiaren pareko zuhaitzak tamaina handia hartu du. Leihoetara gerturatzeko dira dagoeneko zuhaitzaren adarrak.



Bazkardo plazan zuhaitz horren adarrak leihoetara iristen dira. Plazan beheara, N1 errepediruntz joanda, tamaina handiko zuhaitz gehiago dago etxebizitzetatik oso gertu.



Zuhaitzen erretxinak ibilgailuen kristala eta karrozeria kaltetzen du. Baita espaloiak zikindu ere. Irtenbidea emateko eskatu zioten Udalari, Karrikan egindako auzo bileran.



Ama Kandida etorbidean eta Bazkardo inguruan oinezkoen pasabidean zuhaitz ugari dago. Irudiko zuhaitzaren adarrak behearantz joera hartu dute, oinezkoengana geroz eta gehiago hurbiltzen ari direlarik.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Bazkardo auzunean, zuhaitzen tamaina dela eta, adarrak etxebizitza sail handietara gaialderaino iristen ari dira. Zuhaitzen adarrek arazoak sortzen dituztela salatu zuten bizilagun batek baino gehiagok, urriaren 7an Berrozpen deitu zuten bileran. Bazkardoko espaloietan zuhaitzak aurki daitezke ere, eta horiek oinezkoen ibilerari oztopoa eragiten diote. Urriaren 13an, Karrika-Etxeberrieta auzuneetako bizi-

lagunekin egindako bileran, zuhaitzak askoren ahotan izan ziren. Zuhaitzek auzune horietan bi eragozpen edo arazo sortzen dituztela adierazi zuten. Batetik, Berrozpen gertatu bezala, zuhaitzen tamaina handia. Bereziki nabarmena da Karrika kaleko 6. zenbakiaren parean. Bilera horretan gobernu taldeetik erantzun zuten, zuhaitz handien kimaketa udazkenean egin behar da. Azaroan hasiko dira, eta lehen esku hartzea Bazkardon egingo dute. Handik bes-

te auzune batzuetara joango dira kimaketa lanak egitera.

Bestetik, uda hasieran Aiztondo kaleko zuhaitzen erretxinak espaloiak zikindu eta aparkatuta dauden ibilgailuak kaltetzen dituela salatu zuten Karrikako bileran. Ibilgailuen kasuan, gainera, nekez kentzen omen da ibilgailuen leiho edota karrozeriara itsasten den erretxina hori.

Biak ala biak Udal teknikariek aztertu beharreko eskararak dira.

EROSKETAK EGITEKO ETA UDAL ZERBITZUEZ BALIATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DUEN TXARTEL ELEKTRONIKOA DA

Andoain Hiri Txartela

Salkin elkarteak "Andoain hiri txartela"ren aurkezpena egin zuen aurreko ostiralean, Udal ordezkariak eta Rural Kutxako arduradunak bertan zirela. Hilabete luzez landutako egitasmoa da, eta dagoe-

neko martxan dago. Hainbat erosketa egiteko garaian abantailak eskainiko zaizkio txartelaren jabe denari, eta gero eta Udal zerbitzu gehiagorako baliagarria izango da.



Dendetan eta ostalaritzan deskontuak eskaintzeaz gain, Udal zerbitzuetarako baliagarria izango da. Hiribusa, kiroldegia, liburutegia... Etorkizunean txartelaren erabilera Andoaingo zerbitzu guztietara zabaldu nahiko lukete.

“HERRIAN BERTAN EROSKETA EGITEA SUSTATU NAHI DUGU”

Ana Carrere alkateak txartelaren eta herriko merkatarien aldeko hitzak eskaini zituen, Urigainen egin zuten agerraldian: "Udalaren aldetik erosketak herrian bertan egitea sustatu nahi dugu. Andoainen kontsumitza kalitatea, hurbiltasuna eta kofidantzaren berme delako". Balio erantsia eman nahi izan diote txartelari, "merkataritzarako ez ezik, etorkizunean Andoaingo udal zerbitzu guztietara zabaldu nahi dugulako".

Hitza beste eragileei eman aurretik, elkarlanaren garrantzia azpimarratu zuen, "txartela martxan jartzeko prozesu guztia elkarlanean egin da eta hori nabarmentzea garrantzitsua da. Egitasmoa aurreko agintaldian Merkataritza mahian abiatu zen merkatariak, Udal teknikariak eta alderdi guztiak bertan ordezkaturik zeudela".



Udal ordezkariak, Udal teknikariak, Salkineko ordezkariak eta Rural Kutxako arduradunak "Andoaingo hiri txartelaren" aurkezpen ekitaldian. Aurkezpen ekitaldia bideoz ikusgai dago, aiurri.com webgunean.

"Andoainen kontsumitza kalitatea, hurbiltasuna eta kofidantzaren berme da"

Ana Carrere
Andoaingo alkatea

"Elkarlanean aritu gara, eta orain katebegi garrantzitsuen falta zaigu: herritarrak"

Garikoitz Plazaola
Salkin

"Zergatik ez merkatalgune handiek duten irudi berbera edo haien bezain irudi profesionala eskaini?"

Gorka Iturria
Rural Kutxa

“TXARTELAK HERRIARI ERE BULTZADA EMANGO DIO”

Salkin elkarteak **Garikoitz Plazaola** ere elkarlana ahotan izan zuen, erronka berri bat parean zutela gogorarazteko: "Udalarekin eta Caja Ruralekin elkarlanean aritu gara, eta orain katebegi garrantzitsuen falta zaigu: herritarrak. Horren bila joango gara eta Salkineko kide guztiok horri heldu beharko diogu". Dendarientzat garrantzitsua izan da txartelaren sorrera eta zabalkundea: "Herriko merkatariak jabetu gara egitasmo bat osatzen dugula denon artean:

hurbiltasuna eskaintzen duen salerosketarako gunea da gurea. Txartelarekin hurbiltasun horri lotutako abantailak areagotuko dira. Merkataritza eta ostalaritza negozioak indartuta aterako direla iruditzen zaigu eta gure negozioen irudi berri eta profesioanalagoa emateko lagungarria izango da". Plazaola ziur da herritarrak bere beharrak asetzeko ez duela zertan etxetik mugitu behar. Alde horretatik dendariak irudi bat zabaltzen lagundu behar dutela uste du, "herritarra jabetu dadin etxe ondoan zentro komer-

tziala baduela, guk merkatari guztiok zentro komertziala osatzen baitugu". Merkataritzatik haratago, Ernaitzako jabeak Andoain bera indartuta aterako dela uste du: "Ez gara nortasun handiko herria, nire iritziz. Eta uste dut hiri txartelak Andoain herriari bultzada ematen lagunduko diola".

“TXARTELA, TRESNA INDARTSUA”

Rural Kutxako **Gorka Iturria** txartelaren xehetasunak eskaini zituen. Finantza erakundearen parte hartzea horrela deskribatu zuen: "Udalak eta Salkinek

TXARTELA

EZAUGARRIAK

- Doako txartela da.
- Erosketa hiru hilabeteko epean ordaintzeko aukera eskaintzen du, inongo kostu erantsirik gabe.
- Izaera unibertsala du, ordaintzeko egiteko garaian edonon erabili ahal izango baita.
- Txartela eskuratzeko ez da Ruraleko bezeroa izan behar. Bakoi-tzak bere finantza erakundearen txartel hori eska dezake.

NON ESKATU

- Rural Kutxako bulegoetan, Udal bulegoetan eta Salkineko dendetan.

HELBURUAK

- Erosleei abantailak eskaintzea.
- Herritarrei zerbitzua hobetzea.
- Udal instalazioetara sartzeko sarbidea ematea.
- Merkataritza bultzatzea eta sare sozio ekonomikoa garatzea.
- Salkinen irudi profesionalagoa ematea.

garatutako txartelaren bazkide teknologikoak gara. Txartela merkatarien esku jartzan dugun tresna indartsua da, merkatarien lehiakortasuna areagotzeko baliagarria izango dena. Tamaina handiko egitasmoen aurrean, tamaina txikikoek garrantzia bera izan dezakete. Eta zergatik ez handiek duten irudi berbera edo haien bezain irudi profesionala eskaini?"

Kontsumo arduratsua egiten duenarentzat, txartela "sari" modukoa dela gaineratu zuen.

HASIERA · EUSKARA ANDOAINEN · ALBISTEAK · ARGAZKIAK ETA BIDEOAK



andoainDARRA
euskaraz.eus

Andoaingo Udaleko
Euskara zerbitzuaren webgunea

EUSKARA ZERBITZUA

EUSKARAZ BIZI

HAURRAK ETA GAZTEAK

GURASOAK

DIRULAGUNTZAK

KIROLA EUSKARAZ

RAKS

Andoaingo motorzaleen festa larunbat honetan

“II. Andoain Motorfest” jaia larunbat honetan ospatuko dute, Andoaingo Motorzaleak elkartearen eskutik. Goizean Lekunberri, Huitzi, Leitza, Doneztebe, Lesaka, eta Oiarzundik buelta eginda, Goiburua auzora joango dira. Bertan bazkaldu eta, arratsaldean, jolasak egingo dituzte. Antolatzailleen ustez, motoan ibiltzeko urte osoa izaten dute, baina horrelako bilkurek harremanak egiteko eta zaletasun bera duten jende gehiago ezagutzeko balio diete. Dena den, Goiburura jaialdian egon ez den jendea ere animatzera

espero dute: “Egunean zehar motozaleak bilduta egongo gara, baina arratsaldetik aurrerakoa herriko jendeari irekita egongo da”.

EGUN OSOKO FESTA

09:00 Zumea plazan bildu, kamiseta banaketa.
10:00 Moto irteera.
13:30 San Estebanera iritsiera eta poteoa.
14:30 Bazkari popularra
17:30 Sari banaketa, jokoak, opari zozketa...
19:30 Lemon Twist taldea zuzenean.
23:00 Overloud zuzenean.

Argindarraren faktura ordaintzeko laguntza

Andoaingo Udalak argindarkontsumoaren fakturaren zati bat ordaindu ahal izateko laguntzak emango ditu. Laguntzak eskatu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko dira: elkarbitzita unitatean gutxienez adineko pertsona bat edo adin txikiko bat bizitzea, baldin eta dirusarrerak (elkarbitzita unitatea osatzen dutenen guztiena) 950 eurotik beherakoak badira. Halaber, azkeneko 6 hilabetetan ezin izango da elkarbitzita unitatea osatzen duten pertsonengan errolda aldaketarik gertatu, eta egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko litzateke, Gizarte zerbitzuetako batzordearen iritziz.

Eskaera osatzeko hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Nortasun Agiria.
- Familia Liburua.
- Elkarbitzita unitatearen dirusarreraren ziurtagiriak (2015).
- Langabetuek Lanbiden izena emana dutelaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- 2015eko uztailetik orain arteko argindarraren ordainagiriaren ziurtagiriak.

Aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da, 8:30etik 13:00etara, Anbroxia Olabide Gizarte Zerbitzuetako egoitzako bigarren solairuan.

Santa Krutz elkartearen irteera Olite aldera

Santa Krutz erretirodunen elkarteak urriaren 31rako Olite eta azagra alder txangoa antolatu du. Goizeko 09:00etan abiatuko dira Olagain auzoko hiribus geltokitik. Oliten “Bodegas Cosechero”ra bisitaldia egingo diote. Upeltegia ezagutzeaz gain, hamaiketako egingo dute bertan. Ondoren, Olite-

ko gaztelurako bisita gidatua egingo dute.

Bisitaldia bukatu ondoren, Azagararantz abiatuko dira, hango Venecia jatetxean bazkaltzeko. Irteeraren prezioa 40 eurokoa da eta dagoeneko salgai daude Santa Krutz erretirodunen tabernan eguerdiko 13:00etatik arratsaldeko 19:00ra bitarte.

1957an jaiotakoen bilkura

Urtero bezala, 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute. Aurten Txalakan izango da urriaren 31n, arratsaldeko 14:00etan hasita. Izena eman nahi duenak 35 euro sartu behar ditu honako

kontu korrante zenbakian: 2095 5022 1064438285.

Izen-abizenak aipatu behar dira ordainketa egiteko garaian.

Urriaren 23a da izena emateko azken eguna.

Hitzaldia eta tertulia Errekaburun, bertso eskolaren eskutik

Bertsozaleen bilkura Andoni Egañarekin



Bertso eskolako partaideak eta Gipuzkoako txapelketan lehian diren zenbait bertsolari gazte bildu ziren Errekaburun.

Andoni Egaña, txapelketa gaitzat hartuta, aurreko ostegunean hitzaldia eskaini zuen Errekaburu elkartearen. Andoaingo bertso eskolak antolatutako saioa izan zen. Mintzaldia adi-adi jarraitu zuten entzuleek; horien artean zeuden Andoaingo bertso eskolako partaideak eta Gipuzkoako txapelketan lehian diren zenbait bertsolari gazte; hala nola, **Ane Labaka, Oihana Iguaran, Haritz Mujika, Mikel Artola eta Unai Mendizabal**.

Afari merienda prestatu zuten bertso eskolako kideek, eta segidan hitzaldia tertulia gozoan bilakatu zuten. Hitz eta pitz, ordu txikietan amaitu zen ekitaldia. Harrigarria badirudi ere, ez zen bertsozaleentzat; bai ordea, gogoeta, iritzi eta pasadizu jakin-garriak.

Bertsolari txapelketen historia eginez hasi zen Egaña hizketan: Euskal Herri mailan 1935 eta 1936an ospatu ziren lehenbizikoak, 60ko hamarkadan hasi eta 1982ra bitarte Euskaltzaindiak antolatu zituenak. Geroztik Bertsozale elkartearen eskutik egin dira.

Bertsolarien eta bertsozale elkartearen baitan txapelketen inguruko eztabaida beti gertatu izan dela adierazi zuen: “Bada adostasuna horretan, funtzioaren bat betetzen duten heinean direla baliagarriak, alegia”. Zenbait arrazoi aipatu zituen oniritzia indartzeko: “Antolakuntzaren ikuspuntutik, bertolaritzaren hauspoa ematen diote, belaunaldi berrien erakuslehoi bihurtzen dira, munduan zehar dabiltzan inprobisatzaile edo ikertzaileentzat ere fokoz garrantzitsuak izateko



Andoni Egaña, eta haren alboan Oihana Iguaran.

ten dira, eta, bestalde, azken hamabost urtetan ikusi da euskal kulturako beste eragileak (dantzariak, antzerkigileak, idazleak...) erakartzeko balio izan dutela”.

Bertsolariei txapelketek eragiten dizkien onurak gogoratu zituen: “egia da ezinegon sortzen diola eta gainera pentsatzen duela ea epaitua izateko zertarako sartuko den zirko horretan. Baina, aldi berean, bertso eskolan dabilen horri bere burua neurtzeko eta bere bertso kalitatean jauzi bat emateko aukera egokia bihurtzen zaio txapelketa. Egia esateko, bertsolariak nahiko alferrak gara eta txapelketarik gabe askoz ere gutxiago elkartuko ginatke, askoz ere lan gutxiago egingo genuke gure buruarekin eta kideekin”.

BERTSOA NEURTZEAREN INJUSTIZIA

Jardun artistikoak, bertsolaritza barne, ezin dira zenbakietara eramane; subjektiboa da horiek neurtzea. Dena den, eta nahiz eta aitortu kontraesana dirudie-la, bertsoak neurtzearen aldeko agertu zen Egaña. “injustua da

epaimahi batzuren esku uztea, baina nolana ere, nik neurgailuetan sinisten dut, nahiz eta txarrak izan. Bertsolaritza sistema feudalean eroriko baillizateke gainerakoan, guapoenak, graziadunenak edo ez dakit zeinen koinatuak nabarmentzeko moduan. Neurgailurik gabeko gizartea da dagoen gauzarik txarrena. Neurgailuek, gutxienez, ahalik eta parekotasunik handienarekin”. Bestalde, atzoko eta gaur egunean bertsolari gazteek bertsoan jarduteko orduan topatzen dituzten baldintzak izan zituen hizpide. “Asko igo da kantidad eta kalitatea, eta zailagoa daukate gaurko gazteek. Irageanean, gazteen txapelketen antolatzailuek bertsolarien bila ibiltzen ziren ia ethez etxe. Nik 22 urterekin Lizardi saria irabazi eta jada “personajilloa” bihurtu nintzen; berehala hasi nintzen bertsolari handiekin (Lopategi, Amuriza...) kantatzen. Ezinezkoa da gaur egun hori gertatzea. Bertso eskolarik-eta ez zegoenean, abiatzea zen zaila eta erraza iristea. Gaur egun, ordea, abiatzea da erraza eta zaila iristea”.

BEÑAT FERNANDEZ ETXEBERRIA ZAZPI URTEKO ANDOAINDARRA

Zazpi urterekin, abiada bizian

Beñat Fernandez Etxeberria andoaindarra, motoziklismoan abiadura azkarrean dabilen zazpi urteko mutil koxkorra da. Nafarroako txapelketa irabazi berri du.

Bi mailatan irten da Nafarroako txapeldun Beñat: 4,2 eta 6,2 zaldikoetan. Zortzi lasterketa kontuan hartuta, erregularrena eta azkarrena izan da Beñat.

Bederatzi urte bitarteko haurrak lehiatzen dira bi maila horietan, eta bera baino handiagoak diren mutilen aurretik geratu da Beñat beraz. Gipuzkoan ez da antolatzen maila horretako lehiaketarik, eta Beñatek Nafarroako lizentzia dauka; horrexegatik eskuratu du Nafarroako titulua. Famatzen hasita dago Beñat, estatuko hainbat zirkuituetan maila txikien lasterketan; 12 urtekoekin indarrak neurtzen hasi berri da, eta aurre-aurrean dabil horiekin ere. Abaila bizian ibiltzen delako, bihurtuneetan teknika handia erakusten duelako, eta zergatik ez esan, ia lurretik altxatzen ez den mutikoa delako. *Pelontxo* jarri diote ezizena, eta horrela ezagutzen dute zirkuituetan.

ABAILA ETA ZARATA MAITE

Imanol, Beñaten aita, motozale porrokatua da, eta semea etxean ikusi duenetik zaletu dela sanez gero, ez ginatke oso oker ibiliko. "Nik errepidoko eta mendiko motoa eduki izan ditut beti. Bada, txiki-txikitatik, oinez ibiltzeko ere kapaz ez zenean, garajera sartzen ginen guztietan, motoen zarata entzun behar izaten zuten. A ze negarrak egiten zituen motorra entzun gabe geratzen bazen!".

Aita eta semearen aldamenean, isilik zegoen Ana Etxeberria amak, Beñati berez sortu zaion gauza dela dio: "Etxean, etxeko garbiketarik eta nola egiten ditugun, hori ere ikusi izan du beti, baina hortik ez dio jo".

Zaletasun hori ikusirik, aitak, Castejonean (Nafarroa) dagoen motoziklismo eskolara eraman zuen Beñat. "Behin Legazpin, haurrentzat motoen festa antolatu zuten eta Beñat eraman genuen hara. Bertan, motoarekin trebe zebilen haur baten gurasoek Castejoneko eskolaren berri eman ziguten. MotoGPko Jorge Lorenzo pilotoarekin aita ireki du orain gutxi, Beñat bezalako haurrak prestatzeko asmoz. Beñat hara eraman nuen, eta oso gustura dabil harrezkero".

Motoarekin serio ibili nahi duenak, Castejoneko bezalako



Beñat, Marc Marquez munduko txapeldunarekin MotorLandeko zirkuituan, joan den irailan.

eskola berezietara joan beste erremediorik ez dauka. "Gipuzkoan ezin da federatu 12 urte bete arte, eta gainera ez dago eskolarik erakusteko. Beñat eraman izan dut industrigunetara, segurtasun neurri guztiak hartu eta motoarekin pixka bat ibil dadin. Baina berehala etorri izan zaizkigu ertzainak, galerez dagoela esatera".

Aita-semeak ostiralero joaten dira Castejonean. "Han daukagun karabanan egiten dugu lo. Bi eguneko entrenamenduak izaten dituzte ikasleek, ondo zehaztutako egitarauarekin. Larunbat goizean, motokrosa egiten dute; KTM txiki batekin jarduten dute, orekatze eta derrapatze konbentuetan trebatzeko batez ere. Arratsaldean, gimnasia egokitzen zaie; estiramenduak eta ariketak egiten dituzte, gorpuzaren flexibilitatea garatzeko; horrek laguntzen die lurrera eroriz gero minik har ez dezaten. Aldi berean, trialeko bizikletan aritzen dira; bi gurpileko traste batean mantso-mantso eta oreka galdu gabe ibil-

MotoGPko Jorge Lorenzo pilotoarekin aitak eskola ireki du orain gutxi Nafarroan, Beñat bezalako haurrak prestatzeko asmoz

tzen ikasten dute. Azkenik, igandean, bezperakoak errepidatzeaz gain, zirkuituan sartzen dira, motoarekin. Azken batean, ariketa guzti horiek onuragarriak gertatzen zaizkie lasterketan egoki ibil daitezten, eta egoerarik gaiztoenetan ere erreakzionatzen jakin dezaten".

Zenbait asteburuetan, lasterketak edukitzen dituzte estatuko hainbat herrialdeetan (Aragoi, Toledo, Valentzia, Tarragona...), eta irteera luzeagoak egiten ohi dituzte.

Jarduera gogorra da eskolaz ezartzen duena inondik inora, Imanolek aitortzen duenez. "Nolanahi ere, Beñat, asteburua noiz iritsiko desiatzen egoten da. Oso konplizitate handia sortu da gure artean, eta aise pasatzen zaigu elkarrekin



egiten dugun ordu mordoan. Gainera, Castejoneko eskolan lagun talde polita osatzen dute haurrek; lehiatzea egokitzen zaie, baina horregatik ez dute adiskidetasuna galtzen".

SEGURTASUNA

Beñatek, motoaren gainean, 75 kilometro orduko abiadura har dezake. Ez da txantxa, eta ezinbestekoa da Imanoli galdetzea segurtasunagatik. "Arauk oso zorrotzak dira haurrekin. Ekipazio guztia eraman behar dute gainean, jakina: motoak seriezkoak, laruzko monoa, eskuzorroak, botak, kaskoa... anbulantziak ere bertan izaten dituzte. Eskolan izugarri lantzen da segurtasunaren kontzeptua ikasleekin; Beñatek oso barnertua dauka arlo hori, eta esaterako, bizitzako edozein arlotan (bizikletan ibiltzerakoan, autoan...) berak eskatzen digu, guk ezer esan aurretik".

ETORKIZUNARI BEGIRATU GABE

Imanolek ez dio etorkizunari begiratu nahi. "Nork daki Beñat noraino irits daitekeen mototako pilotoen mundu horretan. Bien bitartean, gozatu egiten du eta hori da garrantzitsua. Aspertu egin dela eta utzi nahi duela esaten badu egunen batean, bada, kitto. Horrelakoetan, ez dago haur bati derrigortzea baino gauza okerragorik".

Zaletasun garestia da motoziklismoa, nahiz eta beheko maila horietan izan. "Tonboletan egokitzen diren moto txiki horiekin hasi zen Beñat, baina aurrerago, kategoria ezberdinetako bi moto erosi behar

izan genizkion, mila eurotik gora balio dutenak; eta horiez gain, motokroseko beste motoa eta bizikleta berezia dauka. Aparte, material guztia eta eskolako kuota gehitu behar zaio. Eskerrak mekanikoa naitzen ogibidez; neronek egiten dizkiot konponketak".

Bestalde, Imanolek eskerrak eman nahi dizkie laguntzera prestatu diren Andoaingo babesle komertzialei (Keinu bordatuak, Txitibar, Ferro pinturak, Castrol, Dani Instalaciones eta Azkain motoak). Horiei esker erosi ahal izan dute Beñaten ekipamendu guztia.

Motoziklismoaren zirkuitu profesionalen diruak edo in-fluentziek agintzen dute gaur egun, Imanolen ustez. Mundu horrek gaztetxoek lasterketak ez dituela kutsatu ziurtatu du, hala ere. "Gaztetxoek mailan, denek moto homologatu berberarekin lehiatu behar dute. Zirkuituan ez du balio atzean aita diruduna edo ez dakit zenbat mekaniko edukitzeak. Pilotorekin trebezia nagusitzen da".

Profesionalismoaren deskripzio nahiko etsigarria egin du Imanolek, esan bezala. "Iraganean, motoaren gainean abila ziren pilotuak hartzen ziren kontuan, eta babesleek gidari horien aldeko apustua egiten zuten. Gaur egun, zoritxarrez, zirkuitoan lasterka jardun nahi baduzu dirua eta patrozinatzaileak topatu behar dituzu, gidari ona edo erdipurdikoa. Hiruzpalau (Pedrosa, Marquez, Rossi...) libratzen dira dinamika horretatik; oso piloto onak dira, eta motorren marka ofizialarekin korritzen dute".



BURUNTZALDEA

Erabilera tresnez hornitua dago euskara eskualdean

Mintzalagun, Mintzanet, Zilegi Eskolak, Banaiz Bagara Elkartek aisialdian eta lan munduan sustaturiko prestakuntza saioak... Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo

herriarrok ez dugu aitzakiarik euskara ahotan ez hartzeko. Balia bide faltagatik ez da izango behintzat. Tresnak baditugu, denak ere baliagarriak eskualdea euskaldundu nahi badugu.

MINTZALAGUN

Euskararen erabilera sustatzeko tresna ezin baliagarriagoa. Astean behin kafe bat hartu, paseatu, zaletasunen bat partekatze gogoia izan edota antzeko planen bat egiteko agendan tartetxo bat egitea aski da. Euskaraz aritzea da bete beharreko baldintza bakarra.

Mintzalagunen parte hartze-ko euskaltegi edo euskara taldeetara gerturatu eta izena eman behar da lehenik. Bilguneotan aipatu egitasmoan apuntatzen diren lagunen artean osatzen dira mintzapraktika saioetarako taldeak gero. Hortik aurrera, taldeak guztiz autonomoak dira. Hau da, mintzalagun talde bakoitzak erabakitzen du asteko ze egunetan, noiz, non eta zertarako bildu. Izan daiteke mahai baten bueltan tertulian aritzeko, ibilian asteko bizipenak partekatze-ko... Edozer izanda ere mintzagaia, komunikatzeko hizkuntzak euskara behar du izan.

Talde txikiak izaten dira, guztira 3-6 bidelari eta bidelagunez osaturikoak. Bai, bidelari eta bidelagunez ari gara. Termino hauek argitze aldera; bidelariak, euskara ikasi edo hobetzen ari direnak izendatzeko baliatzen da egun. Eta



Mintzalagun talde bat, Igartubeiti baserriari eginiko bistan. "Aipamen berezia merezi dute bolondres lanetan jarduten duten lagunek edo euskaldun zaharrek".

bidelagunak ahotan hartzerakoan, "euskaldun zaharrek" hitz egiten ari gara. Terminoak argituta, taldekide kopuru zehatzak izaten ditu mintzalagunak; bidelagun bat edo bi eta 2-4 bidelari osatu daitezke.

Kontzeptu eta zenbakiotatik kanpo, anitzak dira mintzalagun taldeak. Euskaltegiko ikasleak izan daitezke, edo ez. Behar desberdinak dituzten bidelariak parte hartzen dute egitasmo honetan. Izan daiteke "euskara ikaslea, ingurune euskaldunik ez duena, edo ingurune euskalduna izan bai, bai-

na euskaraz hitz egiten hastera gogorra egiten zaiona", Lasarte-Oriako Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegi-tako arduradun Olatz Urdanpilletak azaldu digenez.

KONFIDANTZA GUNEA

Guztientzat Mintzalagun euskaraz lasaitasunez aritzeko gunea da. "Lagundu egiten du. Ziurtasuna ematen du. Euskaraz ez dakienari, lehen pausoa egiten errazten dio", dio Urdanpilletak. Mintzatzeko gutxieneko maila bat eskatzen zaio bidelariari; B1 maila.

Gainerakoan, halako esperientzietan parte hartzen duten "denek helburu bera dute, euskara. Zer kontatzen den gutxienekoa da". Nahiz euskara ahotan hartuz partekatzen duten horrek taldea lotzen duen. Hain zuzen, euskara erabiltzeko bildu ohi diren taldeok jorratzen duten ibilbidea ikustekoa izaten da maiz. Kasu batean baino gehiagotan, hasieran euskarak lotzen ditu soilik. Euskaraz aritzeko gogoak, beharrak. Taldekideen arteko harremanak estutzen joan ahala, Urdanpilletaren esanetan, "talde dezente lagun koadrilan bihurtzen dira. Batzuk urte asko daramatzate". Badira euskaltegia utzi arren, gerora ere Mintzalagunen jarraitzen dutenak.

BIDELAGUN

Euskaltegitik begi onez ikusten dute mintzalagun egitasmoa. AEK-ko kidearen esanetan, "izugarri eskertzen da. Helburua ondo hitz egitea izan daiteke, baina benetan hitz egitea da. Mintzalagunekin helburu hori betetzen da eta oso lagungarria da. Ikasleei beti esaten

"Ondo hitz egitea baino, helburua hitz egitea da. Mintzalagunekin helburu hori betetzen da eta oso lagungarria da. Ikasleei beti esaten diegu, klasean egiten dena oso garrantzitsua dela, baina hortik kanpo egiten dena are garrantzitsuagoa"

diegu, klasean egiten dena oso garrantzitsua dela, baina hortik kanpo egiten dena are garrantzitsuagoa".

Klasean euskalduntzeko eginko lanketan sakontzeko, saioetan prestaturikoa hortik kanpo erabiltzeko, "euskaldun izatearen helbururantz oso lagungarria" da benetan. Elkar elikatze bat ematen da mintzalagunen artean. Euskara ikasten ari direnek, klaseko mintzalagun egitasmoan praktikan jarduten dute, eta mintzapraktika saio horretan erabilitakoak euskaltegian aurrerapausoak egiteko balio die ikasleei.

Hori bidelariei dagokienean. Aipamen berezia merezi dute baita noski, bolondres lanetan jarduten duten bidelagun edo "euskaldun zaharrek". Hasten direnek segitzen dute, esperientzia positiboa beraz. "Euskalduna izanda, hasiera batean egitasmo honetatik jaso dezakeenak ez dirudi erakargarria. Baina parte hartzen dutenak emandakoa baino gehiago jasotzen dutela diote. Esker ona jasotzen dute. Irakasle gisa dakit zer nolako poza ematen duen, gutxi edo ia batere hitz egiten ez zuen batek pixkanaka euskaraz gero eta hobeto eta gehiago hitz egiten duela ikusteak", dio Urdanpilletak. Argitze aldera; bidelagunak bolondresak izaten dira gehienetan, ez irakasleak. Bidelariari mintzapraktika saioetan sortzen zaizkion zalantzak euskaltegian argitzen zaizkio gero.

MINTZANET, MINTZALAGUN INTERNETEZ



"Munduko edozein txokotan egonda ere, euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzen du".

Gugandik gertu edo urrun, edozein lekutan euskaraz aritu nahi dutenen artean elkar komunikatzeko beste tresna bat; hainbat erakunde eta eragileek sustaturiko Mintzanet proiektua. "Munduko edozein txokotan egonda ere euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzen duen proposamen berritzailea. Internet bidez, noiznahi, euskaraz mintzatzen diren lagunak topatuko dituzu. Oso erraza da! Zeuk aukeratuko duzu ordua edo zer gairi buruz hitz egin". Aurrez aurreko mintzapraktika saioetan bezala, bidelagun eta bidelariak arituko dira euskaraz. B1 maila beharko du bidelari edo "euskaldun berriak". Informazio gehiago: mintzanet.net.



BURUNTZALDEA

Langileak euskalduntzeko ahalegina

Jatorri ezberdinetako herritarrekin lan egiten dute. Euskaraz bizi ahal izateko tresnak eskaini nahi dizkiete, sarri gure artera etorri berriak izan eta ez hizkuntza, ezta euskal giroa ere ezagutzen ez du-

ten lagunei. Aisialdian hasi ziren eragiten duela sei urte, baina gero eta dagoen eskaerari erantzun nahian, lan mundua eta langileak euskalduntzeko ahaleginean dabil Banaiz Bagara Elkartea.

BANAIZ BAGARA ELKARTEA

Elkarteko kide Petra Elserrek dakartza zehaztasun gehiago lerroetan.

Behar batetik sortu zenuten elkarte 2009an?

Petra Elser: Batez ere ikusi genuelako, nik neuk baita, ez dela hain erraza kanpotik etorzen garen pertsonak euskara ikasi edo zirkulu euskaldunetan sartzea. Printzipioz bide hori errazteko sortu zen. Elkarbizitza eta hizkuntza txertatzen dugu, zeren bereziki zaila da zirkulu euskaldunetan sartzea, bai hizkuntzagatik, aisialdiko ohiturengatik... Horregatik osatzen hasi ginen taldeak non jendea modu informal batean elkartzen zen, oinarrizko euskara ikasteko, gero euskaldunekin elkartzeko. Aisialdi tartean, kantu eta dantza saioak antolatzen hasi ginen, euskara ikasi eta praktikatzeko, eta euskaldunak ezagutzeko.

Zuen lan esparrua zabala da. Lan munduan, lagun artean, kalean eragin nahi duzue?

P.E. Azken 5-6 urteetan batez ere aisialdian lan egin dugu. Buruntzaldean existitzen da gaur egun talde bat, bai aisialdian eta jendarteko harreman-



Hernanin eta Andoainen jada martxan da Euskaraplus proiektua. Petra Elserren esanetan, "Jendearen erantzuna oso ona izan da. Oso ondo funtzionatu du, jendearengana lanbide orientatzailearen bidez iristen baikara".

netan zentratua dagoena, Urnietan. Baina azken bi urteetan ikusi dugu, ezinbestekoa zela lan munduan zerbait egitea. Jendearentzat, baina batez ere hona lan egitera datozenentzat lanak baitu lehentasuna. Lanak beste gauza asko guttiz baldintzatzen ditu.

Euskaraplus egitasmoaz ari zara?

P.E. Bai. Printzipioz bi herritan, Hernanin eta Andoainen jada martxan jarri dugu Euskaraplus proiektua. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Oso ondo fun-

tzionatu du, jendearengana lanbide orientatzailearen bidez iristen baikara.

Enplegatzaile eta enplegatuen arteko zubi lana egiten duzue?

P.E. Ikastaro oso praktikoak ematen ditugu, laneko komunikazioa eta hizkuntza lantzeko. Denak dira laneko simulazioak; benetako tresnekin, benetako lan egoerak antzetzten ditugu. Batzuentzat errazagoa da hizkuntza modu honetan ikastea beste modu batean baino. Gero aztertzen dugu zein enpresak edo zein enplegatzaileek eskatzen dituzten langile euskaldunak, euskaraz zerbait dakitenak, edo euskara ikasteko prest daudenak. Hizkuntzarekin jarrera positiboak dutenak alegia. Saiatzen gara zubi lana egiten, kontratatzailearen eta lana bilatzen ari direnen artean. Gure ikastaroetan parte hartu duten ikasleak gero lanpoltsa batean sartzen dira. Beraiekin harremanetan jartzen gara eta ateratzen diren lan eskaintzak bidaltzen dizkiegu. Jarraipen bat ere egiten diegu lana bilatzeko prozesuan, eta baita ere, lana aurki-

"Azken bi urteetan ikusi dugu, ezinbestekoa zela lan munduan zerbait egitea. Jendearentzat, baina batez ere hona lan egitera datozenentzat lanak baitu lehentasuna"

tuz gero lanean atera litezkeen komunikazio egoerak lantzeko eta ikasten jarraitzeko. Enplegatzaileen aldetik ere izan ditugu dei batzuk. Tabernariak deitu digute. Lana bilatu duten bi pertsona ditugu; batek zaintza arloan familia batean lan egiten du. Eta beste batek taberna batean. Dei gehiago izan ditugu eta kurrikulum gehiago bidali ditugu. Hemendik aurrera erantzun gehiago izatea espero dugu. Enpresek gu ezaugu eta poliki poliki erreferente batean bihurtzea, hori da asmoa.

Aurtengo ikastaroak bukatu dituzue. Noizko saio gehiago?

P.E. Buruntzaldean aurtengoak bukatu da. Orain datorren urteko ikastaroak prestatzera goaz. Jende gehiagorengana heltea espero dugu. Ikastaroez gain, euskara moduluak eskaintzen ditugu, 4 orduko tailerrak.

Herriz herri zer egitasmo bideratu dituzue?

P.E. Urritik aurrera berriz martxan izango da Urnietan, euskara ikasteko talde ireki bat. Parte hartu ahal da bertan. Andoainen bi ikastaro egin ditugu; ostalaritza eta pertsonen zaintza ingurukoak. Hernanin 3 egin ditugu; pertsonen zaintza, ostalaritza eta metalgintza. Aurten Lasarten ez dugu talderik izan. Astigarragan eta Usurbilen orain arte inoiz ez dugu ikastarorik egin. Gure asmoa, datorren urteari begira, Euskaraplus proiektua Buruntzaldea osoan eskaintzen saiatzea da.

INFORMAZIOA

Informazio gehiagorako, euskara zerbitzuetara jo:

Andoain

Euskara Zerbitzua:

Goiko Plaza z/g
20140 Andoain
943 300 831
euskarazerbitzua@andoain.eus
andoaindarraeuskaraz.eus

Astigarraga

Euskara Zerbitzua:

Foru Enparantza 13.
20115 Astigarraga
943 335 064
au.kultura@astigarraga.net

Hernaniko

Euskara Zerbitzua:

Gudarien plaza 1,
20120 Hernani
943 337 029
euskara@hernani.eus

Lasarte-Oriako

Euskara Zerbitzua:

Kale Nagusia 22,
20160 Lasarte-Oria
943 376 184
euskara@lasarte-oria.eus

Urnietako

Euskara Zerbitzua:

San Juan z/g,
20130 Urnieta
943 008 033
euskara@urnieta.eus

Usurbilgo

Euskara Zerbitzua:

Irazu kalea,
20170 Usurbil
943 371 999
euskara@usurbil.eus

Bailarako euskararen ataria:
euskara.buruntzaldea.eus

Informazio gehiago:
euskaraplus.eus
Twitter: @banaiga
Facebook: Banaiz Bagara

ZILEGI ESKOLAK

"Euskalduntze prozesua eta alfabetatzea modu naturalean lantzeko saioak" ere badira Buruntzaldean; Hernanialdeko, hau da, Astigarraga eta Hernaniko AEK euskaltegiek eskaintzen dituzten zilegi eskolak. "Herriko euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak elkarrekin arituko diren saioak dira: historia, sexualitatea, eskulanak, sukaldaritza, osasuna, jolasak, landareak, masajea, filosofia, sendabelarrak... Bertan parte hartzeko interesa besterik ez da behar. Ez dira

hitzaldiak, saio dinamikoak baizik, eta partaideek eztabaidatu, hausnartu, landu, sortu... eta elkarreginez euskara landu eta gaiei buruz asko ikasteko aukera izango dute".

Saio motibagarriak izaten dira ikasleentzat.

Informazio gehiago:

607 59 28 64 (Hernani)
607 61 06 87 (Astigarraga)
zilegieskola.blogspot.com.es
zilegieskola@aek.org



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Andrea neskato galiziarra

“Gurasoek hartu duten jarrera maitasun ekintza da”

Ezagun duzue jada, aiurritarrok, Andrea neskato galiziarren kasua. Denon ahotan izan baita, komunikabide ugarietan zein lagunen arteko hizpideetan. Izan ere, horrelako kasu batek gure barnean zirrara sortarazten du, ez baitira berdinak adineko baten edota hamabi urteko gazte baten heriotza. Andrea gaztetxo zen, Santiagokoa, eta sendabiderik ez zuen gaixotasuna zuen. Ekainaren 10ean eraman zuten erietxera, eta hor hasi zen sufrimendua, neskarena nahiz gurasoena. Hain justu une horretan sortzen dira zailtasunak, oztopoak eta heriotzaren inguruko eztabaidak. Esan nahi baita, zilegi al da gaixotasun sendaezina duen pertsona batek horrela sufritzea? Jakinik, gainera, sendatzeko modurik ez duela? Betiko mamua hauspozten da horrelakoetan: eutanasia.

Heriotzan laguntzea, alegia, eta noraino bete da legeak eskaintzen duen aukera. Gertaera hori dela eta Gipuzkoako komunikabide batek zenbait galdera egin zizkidan. Izenburu gisa esan nion: “Gurasoek hartu duten jarrera maitasun ekintza da”. Alaba gaztea izan ala adineko gurasoa izan, edozein dela kasua, maitasun jarrerak dira eta ez zenbaitek dioten bezala, Jaungoikoarengandik dator kigun absolutu bat.

Badut honen inguruan anekdota bat zuokin partekatu nahi dudana. Eutanasiaren inguruan egin zuten eztabaida batean nengoen eta, nirekin, Opus Deiko apaiz bat ere bai. Nik eutanasia defendatzen nuen, eta gainera maitasun ekintza bat zela erantsi nion. Bere erantzuna oso bestelakoa zen, nik defendatzen nuena pertsona akatzearen pare zela adieraziz. Esan ere, esan nion hitz hori nik txikitan amaren baserriko osabari entzuten niola, aberetxoren bat hil behar zenean. Benetan bihotz eta sentimendu gabea deritzot horrela mintzo denari eta horrelako jarrerak mantentzen dituen erakunde bati. Jar zaitzte guraso zaretenok Adrianaren gurasoen lekuan. Ez dut zalantzarik ez zenukete la semea edo alaba sufrizten ikusi nahi, jakinik gainera bere gaixotasunak ez duela irtenbiderik. Eta seme-alaba esaten duenak aita, ama, anai-arreba esan dezake. XXI. mendean gaude, eta ezer gutxi aurreratu dute eskuindarrek eta Elizak berak.

Eutanasiaren edo hiltzen laguntzeari buruzko eztabaidak gerorako utzita, badira zenbait lege eta arau ongi betetzeko heriotz duin bat bermatzen dutenak. Andrearen kasuan gertatu dena zera da: badirudi Ospitaleko Bio Etikako batzordea haurrari ematen zitzaion elikadura kentezarekin ados zegoela, modu horretan Andrea lasai eta bakean hil zedin. Baina medikuak ez zeuden ados eta gatazka hor sortzen da. Jakina, medikuek esan dezakete bere sinismen edo kontzientziaren arabera jokatzeko dute-

la. Baina zer? Medikuek horrelako erakunde batean sartzen denean jakitun izan behar du non sartzen den, eta zein betebeharrak dituen. Hortik arazoa epaileengana pasatzen da. Eta, azkenean, atzera-aurreratzen ibili ondoren epaileak ezabatu behar izan du kasua, gurasoen eskabidea bete dadin agindua emanez. Horrela joan da Andrea gaixoa, sufrimenduan, alferriko sufrimenduan gainera. Horri enkarinizamendua deitzen zaio, gazteleeraz: encarnizamiento terapeutico. Espainian bada lege bat “gaixoaren legea” deitzen dena, eta honen arabera, horrelako kasuetan ez legoke eragozpenik artifizialki mantentzen den bizitzari amaiera emateko. Aipagai dudak kasuan nahikoa zuten azken momentuan epailearen aginduz egin dutena, bere momentuan egitea. Code Penalean, halaber, eutanasia pasiboa deitzen dena aplikatzeko: sedazioaren bidez lotarazi eta bakean hil. Horrez gain, zenbait erkidegotan, hala nola Andaluzian, Aragoian eta Iruñean parlamentuak lege bat egin du zeinean heriotz duina bermatzen den. Hemen ere, Legebiltzarrak horretan dihardu. Zorrotza izan beharko du, legeak onartzen duena ospitalean ahalbidetzen ez den kasuetan.

Hortik harago dago Herbehereak, Belgika, Luxenburgoko eta Estatu Batuetako zenbait estatuk defenditzen duten eutanasia, eta hiltzen laguntzea. Ez da azken momentuko gaixotasun edo egoerari mugatzen, baita beste zenbait gaixotasunei ere. Duintasunez hiltzeko elkarteak defendatzen duena zera da: pertsonak bere heriotza aukeratzeko duen eskubidea. Hori pertsonaren askatasunari loturik dagoen zerbait da. Hor dago gakoa. Libre garelako gure heriotza aukeratzeko.

Eskuindarrek ordea, eliza barne, eskubide eta askatasun hori kendu nahi diote pertsonari. Entzun edo irakurri dut Erroman gotzainak bilduta daudela Sinodo edo deitzen dioten Batzarrean. Hor dabilta oraindik ea banandutako emakumeen edota homosexualen ezkontzari buruz eztabaidatzen. Estatu laiko batek ez du zergatik horren menpe egon behar, abortuarekin gertatu ohi den bezala.

Hauteskundeak abenduan. Denek horri begira. Eutanasia aktiboa eta hiltzeari laguntzea defendatzen dugunok ere bai. Entzun dut, elkarte horrek madrilen mahi inguru bat edo antolatuta duela, hauteskundeetan aurkeztuko diren indarrek edo alderdiek gaiari buruz zer dioten azal dezaten. Eta, jakina, ezkerrekoek baietz diote. Lege berri bat egin beharko da, Europako herrialde aurreratuenei begira.

HITZ-GEZIDUNAK

	Karrika	Sindikatu abertzalea	Mirakuluak
	Dozena bat	Elikadura	Ezagutzen du
	Itsasbaterreko amildegi		
	Instintu		Dago
			Kontsonantea
Kafearen gaia	Abeslari	Ipar EH-n, esna	
Ganbara	Soinaren atal	Errenkadak	
			Bokala
			Ate, hitz elkartzeetan
* IRUDIKO ESTATUA			Modu atzizkia
Kez bete			Damutatsuna
			Potasioa
			Idi, hitz elkartzeetan
Dardara			Musika nota
Txori mota			Kontsonante bustia
			Gorotza
			N birritan
Jarduera, aritzea			Kontsonantea

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Jatorri argentinarra duen dantza. 2.- Ardi, hitz elkartzeetan. Bizkaieraz, iratzea, garoa. 3.- Arrantza tresna. Ile multzo. 4.- Zigorra. Europaren laburdura. 5.- Bokala. Antolatua. Kontsonantea. 6.- Jupiterren satelitea. Zortzigarren hilabete. 7.- Garaia, aroa. Infusio mota. 8.- Errepikatuz, irakiten ari denean. Sartu aditzaren oina. 9.- Aurki.

GOITIK BEHERA: 1.- Emakume izena. 2.- Sortu zintuena. Palestinaren Askapenerako Erakundearen laburdura, gaztelaniaz. 3.- Aldaketa. Toka, du. 4.- Kanpo. Bedera-tzigarren hilabetea. 5.- Kontsonantea. Semearen arreba. Uranioaren ikur kimikoa. 6.- Bideratu. Kontsonante errepikatua. 7.- Lehen, zakurra. Arku. 8.- Sarrera. Gironako ibaia. 9.- Erabat haserre, herra bizian.

HIEROGLIFIKOA



Ikasgelako ikasle onenen izenak

ERANTZUNAK

Ereñterria
Alaba. U. 6. Gidalu. Sa. 7. Ora. Uztai. 8. Ate. Ter. 9. Sutura.
GOTIK BEHERA: 1. Amala. 2. Ama. OLF. 3. Truke. Dik. 4. Al. Iraila. 5. N.
Eratu. 1. 6. 10. Abuztu. 7. Alda. Tea. 8. Ptl. Sar. 9. Kauzi.
EZKER ESKUIN: 1. Tango. 2. Art. Ira. 3. Amu. Adats. 4. Makila. Eu. 5. A.

M	I	R	A	K	U	R
L	A	B	A	R	A	
K	A	M	A	B	A	
H	S	E	N	T	A	
K	S	A	B	A	I	
S	A	B	A	I	N	
K	S	A	B	A	I	
S	A	B	A	I	N	



KIROL ALBISTEAK

Senior mailako nesken hasiera indartsua

URNIETA LARRIALDIK 13
LEGAZPI 27

Senior neskek.

Urnietako senior nesken taldeak indartsu ekin dio Euskadiko Txapelketari, orain arte jokatutako bi partidak irabaztea lortu baitu. Victor Rodriguezek zuzendutako taldeak jokalarri beteteranoen erretiroa eta Maria Salaberriak aurrendenboraldian izandako lesio larria ahaztu eta majo sufritutako garaipena lortu zuen Legazpiko La Salleren aurka. Lehenengo zatian bi taldeen arteko berdintasuna nagusi izan zen, erasoan akats ugari eginez. Urnietarrak gol bat azpitik iritsi ziren atsenedaldira (11-10). Bigarren zatian UKERen asmoa partidaren erritmoa bizkortzea eta markagailuan aldentzea izan zen, defentsa bikain batean oinarrituta. Asmoa betetzea lortu zuten, bigarren zati osoan hiru gol bakarrik jaso baitzituzten. Partida amaitzeko bost minuturen faltan urnieta-



URNIETA GURIA 20
BIDASOA 20

Jubenil mutilak.

Urnietako mutilek lehenengo zati pattala burutu zuten, batez ere defentsa lanetan; ez ziren behar bezain sendo ibili eta ezin izan zuten Bidasoaren barne-jokoa eten, pi-

botea oso erraz topatzen zutelarik. Bigarren zatian berriz arazo hori konpontzea lortu eta Xabi de la Motaren mutilek azken minutuetan partida berdintzea lortu zuten. Irabazteko zorian izan ziren, partidako azken jokaldian.

rrek markagailuan 3 goleko alde zuten. Azkenean, 13-17 irabazi zuten urnietarrek, den-

boraldi zail honi aurre egiteko animikoki primeran etorriko zaiona.

Futbol emaitzak

ERREGIONAL OHOREZKOA

5. jardunaldia:

Anaitasuna 3-0 Euskalduna

Saillkapena:

- | | |
|---------------|----------|
| 1. Tolosa | 15 puntu |
| 2. Anaitasuna | 13 puntu |
| 4. Euskalduna | 10 puntu |

6. jardunaldia:

Euskalduna-Ostadar

Urriak 17. 16:00.

PREFERENTE MUTILAK

4. jardunaldia:

Urnietak 1-1 EAS08

Saillkapena:

- | | |
|------------------|----------|
| 1. Sanpedrotarra | 12 puntu |
| 2. Astigarraga | 10 puntu |
| 3. Urnietak | 10 puntu |

5. jardunaldia:

Lengokoak-Urnietak

Urriak 17. 15:30.

ERREGIONALA NESKAK

3. jardunaldia:

Intxaurdi 2-4 Urnietak

Saillkapena:

- | | |
|--------------|---------|
| 1. Urnietak | 9 puntu |
| 2. Allerru | 6 puntu |
| 3. Intxaurdi | 4 puntu |

4. jardunaldia:

Urnietak-Touring

Urriak 17. 18:00.

Teknifikazio saioak Logroñon

Aurreko asteburu luzean Gipuzkoako Federazioak teknifikazio saioak antolatu ditu Logroñon, eta deialdira 12 igerilari deitu ditu. Horietatik 4 Buruntzaldea IKT taldekoak dira: Mikel Esnal andoaindarrak, Itsaso Tolosa, Haitz Mitxelena eta Iñigo Ibarburu. Igerilari absolutuei zuzenduriko stage horretan igerilariak eguneroko lehorreko entrenamendu saioak egin dituzte eta baita uretako saioak ere.



Mikel Esnal andoaindarrak, eskuinetik lehena.

Jubenil mailako hiru jokalariren gurasoen kexa

Aurreko denboraldira bitarte **Leizaran** eskubalo klubeko kide ziren hiru jokalariren gurasoek gutuna helarazi diote **Allurralde Kirol Patronatuari**, "diskriminazio"tzat jotzen duten jokabidea salatzen. Jubenil mailako hiru jokalarrietako bat Zarautz herriko taldera joan da, eta beste bi Usurbilera. Lehengoaren kasuan arazorik ez diote jarri, eta aldiz Usurbilera joan dire-

nei klubetik formakuntza eskubideengatik dirua eskatu diete. Hilabete luze iraun duen ika-mikan, azkenean bi jokalariren gurasoek "beren patrikatik ordaindu behar izan dute beren alaben askatasun eskubidea". Egoeraren berri emateko patronatuko kideek gutun bana jaso dute, gertaera salatuz eta halako exijentzien zergatiaz kezka agertuz.

Urnietatik Behobiara busez

Urnietako taldeak Behobia-Donostia lasterketara joateko doako autobusa antolatuko du. Interesatuek izena emateko harremanetan jarri behar dute, izen-abizenak eta telefono zenbaki bat adieraziz, "izen ematearen ordena kontuan hartuko da.

Lehen autobusa bete eta jende nahikoa egonez gero, bigarren bat antolatzeko aukera egongo da. Bigarren hori ordaindu egin beharko litzaiteke".

Izen-ematea:

korrikalarisatope8.0@gmail.com
635 747 004

Saski denboraldia martxan

OSTADAR 72-75 GANBARA SENM Luzapenean eta azken jokaldian, halaxe irabazi zuten andoaindarrek.

ASTEBURUAN ANDOAINEN

GANBARA INFM-LARRAMENDI Larunbata, 17. 09:00.

SAILKAPENA, Seniorrak:

GANBARA JUBM 45-27 TAKE Hasiera kaskarra, markagailua irauli zuten ondoren.

- | | |
|------------|---|
| 1. Añorga | 4 |
| 2. Mutriku | 4 |
| 3. Ganbara | 4 |

Areto futbol txapelketa

Hasiera eman diote Andoaingo arteto futbol txapelketaren denboraldi berriari, kide berriekin.

Lehen jardunaldia, urriak 3:

Drink Team 0-6 Academia G.F

Ekhia 7-1 Pausoka
Aure Maiton 6-3 Ekaitz
Dad Kutxa 5-1 Hogar Extremeño
Objetivo Zona Uefa 6-5 Bar Egur
Ondarreta 0-16 Keler
Txalaka 8-4 Centro Extremeño

Zanpatuz taldearen irteera

Urnietako mendi taldeak egun osoko irteera egingo du datorren urriaren 31n. Belate mendatean hasiko da irteera, 870 metrora, eta Saioara bidean Azkenatz (1.171 m.) eta Okolin (1.352 m.) gailurrak igoko dira. Ibilbidea bi ordu eta erdikoa da, samurra. Ez dauka aldapa handirik, eta bide gehientsuena belaze gainean egin behar da. Gailurretik Artesiaga mendatera

jaitsiko da taldea, eta han autobusa izango du zain, Eugi herriraino joateko. Itzulera 17:00ak aldera izango da, Urnietara 18:30ak aldera iristeko. Xauxar, Kantoi eta Gurriandak da izena emateko zerrandak. Urriaren 25a izango da azken eguna. Ordainketa izen-ematearekin batera egin behar da: autobusa 10 eta bazkaria 20 euro (biak egin nahi dituenak 30 euro).

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 15ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Hitzaldia

Urnietan, Lekaio

- Hedabideak eta elkarbizitza: Gorka Landaburu, Martxelo Otamendi, Pablo Muñoz. 19:00. Urriak 15, osteguna.
- Astebete geroago, Udalak bake programa aurkeztuko du. 19:00. Urriak 22, osteguna.

Zinema

Andoain, Bastero

- Amama.** Larunbata, 17. 19:30/22:00. Igandea, 18. 21:30. Astelehena, 19. 19:30/22:00. Haurrentzat: **Etxe magikoa.** Larunbata, 17. 17:00. Igandea, 18. 17:00.

Urnietan, Sarobe

- Musculos,** haurrentzat. Bi saio: 16:00, 18:30. Urriak 18, igandea.

Farmaziak

Eskualdea

- Guardiako farmaziak. **Andoain:** Diaz, asteburu osoa. **Urnietan:** Tanco, asteburu osoa. **Eskualdea, gauz:** Etxebeste. Elkano, 9. Hernani.

Bilkurak

Andoain

- "Parte hartze hariak lotuz". Landa-guneak, Goiburu, Buruntza, Leizotz. 18:30. Pleno aretoa. Urriak 15, osteguna.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- "Kreditua", Zuhaitz Gurrutxaga eta Joseba Apaolaza. 21:30. Auditorioa. Urriak 16, ostirala.

Musika

Andoain, Bastero

- "Gogoeta", Xabier Zabala & Bilboko txistulari banda. Aspanogi elkartearen aldeko elkartasun kontzertua. 20:00. Urriak 17, larunbata.

Urnietan, Sarobe

- Paddam bikotea zuzenean. Bildutako dirua Markel Carmona haurraren errealizazioa bideratuko da. Bi saio: 19:00, 20:00. Urriak 17, larunbata.

Deialdia

Andoain

- Caritasek irakasle boluntarioak behar ditu, laguntza klaseak emateko. caritasandoain@yahoo.com

Erakusketa

Andoain, Bastero

- "Bizibideak", Gartxot Arregiren eskutik. Azarora arte, zabalik.

Diaporama

Urnietan, Sarobe

- Himalaya bizikleta gainean. 19:00. Urriak 21, asteazkena.

Pailazoak

Andoain, Bastero

- "Txutxupe", Txirri, Mirri eta Txirribiton. 17:00. Auditorioa. Urriak 25, igandea.

Solasaldia

Andoain, Liburutegia

- "Lurtarra da begiratu" liburuen gaineko solasaldia, idazlea bera bertan izango delarik. Izena ematea Liburutegian bertan. 19:00-20:30. Liburutegia. Urriak 27, asteartea.

Lehiaketa

Andoain

- "Andoain laburrean", eskualdeko film lehiaketa. Gazte eta profesional ez diren helduei zuzendua. Info: andoaindarrak400.eus

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak **Urko**, zure durasoen partetik. Asko maite zaitugu.

URNIETA

ZORIONAK



Urriaren 17an 6 urte bete zituen. Jarrai orain bezain berritsu! Muxuak **Maren**. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 30ean **Oihan** urteak beteko ditu amatxo berriak. Muxuak etxekoen partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aintzane 21 urte beteko ditu urriaren 31n. Muxu pila bat familia osoaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Urriaren 19an **Eñaut** 10 urte. Etxeko gazte txoen ari muxuak. Gurasoak eta arreba.

URNIETA

ZORIONAK



Aimar Aizpurua Otañok azaroaren 6an 3 urte. Zorionak maitia. Aiara, aita-txo eta amatxo.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 22a zure urtebetetzea, 15. udaberria gaurkoan. **Ane** zurea futbolearen gustora aritu, dantzari gisa hobea, famili eta lagunartean moldatzen neska trebea, etxekoek bihotzez esan nahi gure izarra zarela.

URNIETA

Bizikidetzaren jardunaldiak



Maribel Vaquero (EAJ), Itziar Artola (EH Bildu) eta Consuelo Frutos (PSE-EE).

Urnietako Udalak bizikidetzaren sustatzeko mahai-ingurua eta bilera irekia antolatuko ditu, Agenda atalean ikus daitezkeen. Hiru alderdi politikoen, ohar bateratuan adierazi dutenez, herritarrak deialdi bikoitzean parte hartzea deitu

dituzte: "2011ko amaieratik bakea eta elkarbizitza sustatzeko lanean ari gara, eta denbora tarte horretan urnietarrak paper garrantzitsua izan eta jokabide aktiboa erakutsi dute. Bide beretik jarraitzea nahiko genuke".

DATORREN AIURRI ASTEKARIA URRIAREN 22AN ARGITARATUKO DA



Himalaya bizikletaz

Diaporama - Bidaiateka

Urriak 21, asteazkena

19:00

Saroben

Hizlariak:

Aitor Dorronsoro

Ramon Arrizabalaga



Gazteguneri

gazte

informazioa

Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnietan (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnieta.eus